

977/2021 EBAZPENA, abenduaren 20koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez onesten diren onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera, Santurtziko Helduen OMZko osasun mentaleko unitateburu bat hautatzeko egindako deialdian.

AURREKARIAK

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko (BOMS) zuzendari gerentearen urriaren 22ko 605/2020 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen, osasun mentaleko unitateburu lanpostu bat betetzeko, lehiaketa-sistemaren bidez, BOMSeko Santurtziko Helduen OMZn (EHAA, 247. zk., 2020ko abenduaren 11koa, eta BOE, 329. zk., 2020ko abenduaren 18koa).

Deialdian, 15 egun baliouduneko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko, ebazpena zegokien aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratuko zen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta epe hori 2021eko urtarrilaren 13an amaitu zen.

BOMSeko zuzendari gerentearen urtarrilaren 22ko 41/2021 Ebazpenaren bidez, onetsi zen prozesuan onartu eta baztertutako behin-behineko zerrenda.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, BOMSeko zuzendari gerenteak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emango du, eta norbait bazterturik egonez gero, adieraziko du zein izan diren baztertzeko arrazoiak. Ondoren, agindua emango du, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitaratzeko.

Aurrekoarekin batera, argitaratu beharrekoa da Balorazio Batzordearen izendapena.

Horrenbestez, pertsonaleko alorrean indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskumenez baliaturik, eta Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen 15.1 e) artikuluari jarraikiz (255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa eta EHAA, 219. zk., azaroaren 14koa), lehiaketaren arauak betetzeko,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestea, BOMSeko Santurtziko Helduen OMZn osasun mentaleko unitateburu lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onestea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren web-orrian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2021eko abenduaren 20an

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea

Carlos Pereira Rodríguez



I. ERANSKINA

BOMS-EKO SANTURTZIKO HELDUEN OMZ-KO OSASUN MENTALEKO UNITATEBURU LANPOSTUA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Beatriz García Moratalla and.

Baztertuenak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoiak:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu du.
- 6- Beste batzuk.

II. ERANSKINA

BOMS-EKO SANTURTZIKO HELDUEN OMZ-KO OSASUN MENTALEKO UNITATEBURU LANPOSTUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburu

Titularra: José Ignacio Landaluce Lauzurica jn.

Ordezkoa: Edurne Omaetxebarria Legarra and.

Lehen batzordekide

Titularra: Maribel Romo Soler and.

Ordezkoa: Inmaculada Moro Casuso and.

Bigarren batzordekide

Titularra: Arkaitz Imaz Etxeberria jn.

Ordezkoa: Maite Aldabaldetrekua Gabirondo and.

Hirugarren batzordekide

Titularra: Juan Medrano Albeniz jn.

Ordezkoa: Luis Pacheco Yañez jn.

Laugarren batzordekide

Titularra: María Begoña Mendivil Eguiluz and.

Ordezkoa: Izaskun Elortegi Kaiero and.

Idazkari:

Titularra: María Urraza Bernaola and.

Ordezkoa: María Carmen Iglesia Rosende and.